



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

UDALBATZAK 2019KO URRIAREN 24AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Igor Zampirain Lizarribar EH BILDU
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU
Agurtzane Arribillaga Uranga EH BILDU
Aitor Jimenez Iparragirre EH BILDU
Cristina Martinez Arnaiz EH BILDU
Maria Iciar Jauregui Huarte EAJ-PNV
Juan Luis Cid Conde EAJ-PNV
Rodrigo Vilar Caballero Arellano EAJ-PNV
Juan Maria Caballero Arellano EAJ-PNV

IDAZKARIA :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hemeretziko urriren hogeita lauan** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak ez-ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zampirain Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- Hasierako onarpena 2020 urteko ordenantza fiskalen aldaketa dokumentuari**
- 2.- Ibarra EAJ/PNV udal taldeak udalbatzari aurkeztzen dion mozioa aldaketa klimatikoaren inguruan**
- 3.- Kataluniako arazoaren inguruan EH BILDU taldeak aurkezturiko deklarazio instituzionala.**

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

LEHENA:

1.- HASIERAKO ONARPENA 2020 URTEKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA DOKUMENTUARI

2019ko urriaren 18an izandako Ogasun eta Pertsonaleko Batzordean onarturiko irizpena aztertu da, non 2020 urteko ordenantza fiskalen aldaketa dokumentuari hasierako onarpena ematea proposatzen den.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin, (BILDU eta EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Hasierako onarpena ematea, jarraian azaltzen diren ordenantza fiskalen aldaketari

1.- Tributu guztiei % 0,7 ko igoera aplikatzea.

2.- Epe luzeko langabetuei % 50 eko hobaria onartzea, ondorengo tributuei dagokienez:

- 2.1.5. Hileta-zerbitzuak
- 3.1. Kirol instalazio eta ikastaroak
- 3.2. Kultur tailerrak.

3.- Tasa eta prezio publikoen ordenantzetan, gaitasun ekonomikoarekin lotura duten hobariak mantentzea, eta besterik bada, ezabatzea, hau da, errenta aitorpenak eta epe luzeko langabetuak.

4.- Kiroldegiko ordenantzan honakoa jasotzea:

- Kiroldegiko kurtsoa 3 hilabetekoa 80 euro

5.- UDALTZAINGOAREKIN LOTUTAKO TASA BERRIAK

- + Ibilgailuen hondakinen kudeaketa 100 euro
- + Animalia arriskutsuak

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Certificado inscripción animal en registro 25,00
- Tarjeta de certificación en registro 6,00
- Tarjeta licencia tenencia animales potencialmente peligrosos 6,00
- + Udaltzaingo txostenak
 - Istripu txostena: 8,25
 - Txostena argazkiekin: 19,90
 - Atestatua: 84,00
- + Garabi zerbitzuarekin lotutako tasak

ERANSKINA		ANEXO	
Ibilgailuak eramatea			Retirada de vehículos
Ordaindu beharreko kuota zerbitzu hori kontratatzeak dakarren gastuaren araberakoa izango da			La cuota de pago se cuantificará por los gastos que ocasione la contratación del servicio.
Ibilgailuak ibilgetzea			Inmovilización de vehículos
Motozikleta, ziklomotor, moto-karroak eta antzeko ibilgailuak. Egun edo frakzio bakoitzeko.	11		Motocicletas, ciclomotores, motocarros y demás vehículos de características análogas. Por cada día o fracción
1.500 Kg arteko automobil partikular, furgoneta, kamioi, traktore, atoi eta antzeko ibilgailuak. Egun edo frakzio bakoitzeko	26		Automóviles de turismo, furgonetas, camiones tractores, remolques y demás vehículos de características análogas con remolques inferior a 1.500 Kg. Por cada día o fracción.
1.500 Kg eta 3.500 kg bitarteko automobil partikular, furgoneta, kamioi, traktore, atoi eta antzeko ibilgailuak. Egun edo frakzio bakoitzeko.	50		Automóviles de turismo, furgonetas, camiones tractores, remolques y demás vehículos de características análogas con remolques superior a 1.500 Kg. e inferior a 3.500 Kg. Por cada día o fracción

6.- Zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza orokorra.

-15.2.g) Helbideratze eskaerak onartzeko, bai, altak, aldaketak, nahiz bajak azken eguna dagokion errolda egin aurrekoa izango da, eta hurrengo erroldarako eskaturikoa izango da aplikagarri.

-25 artikulua. Familia ugariak. Hobari eta salbuespenak egiteko familia ugarietara ondorengo baldintzak bete behar dira:

Ibarran erroldatua egotea

Urtarrilaren 1ean izatea familia ugaria

Eguneratutako familia ugarien txartela aurkeztea urte bakoitzeko otsailaren 28 aurretik.

-26 Minusbalotasuna: Dagokion urteko otsailaren 28 baino lehen aurkeztu behar da baldin eta baremazio agirian minusbalotasunak iraungitze data badu.

7.- 1.1. Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

3. artikulutik aurrera aldatzen da.

III kap: Salbuespenak eta hobariak

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

3.1. Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkarri diplomatikoen, kontsulatuko bulegoen, eta atzerriko agente diplomatikoen eta karrerako funtzionario kontsular kreditatuen ibilgailuak, kanpotik identifikatuta badaude eta mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta estatutu diplomatikoa duten funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzarako nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean.

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gorpil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrik izango du salbuespena.⁵

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- f) Autobusak, mikrobusak eta hiri garraio publikoari atxikita dauden gainerako ibilgailuak, plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.
- g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Kartilaz hornitutako traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

2. Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak behin salbuespena onartuta, agiria luzatuko du hura eman dela egiaztatzeko. Aurreko 1. apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesatuak desgaitasunaren frogagiria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena, aurkeztu beharko dizkio zerga ezartzen duen udalari, eta ibilgailua zertarako erabiltzen duen ere justifikatu beharko dio udalak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko duen eran. Aipatutako frogagiriak organo eskudunak emanak izango dira beti.

e) apartatuaren arabera minusbaliotasuna duen pertsonaren bat ardurapean duten pertsonak Udalaren aurrean egiaztatu behar dute minusbaliotasun maila eta minusbaliotasuna duen pertsonarekin duten harremana.⁶

3. Orokorrean, salbuespenen eraginak eskatutako ekitaldian ez baizik eta hurrengo ekitaldian hasiko dira, eta ez dute atzeraeraginezko izaerarik

4. Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, udalerrri honetan erroldatuta egon beharko duten ibilgailuen titularrek zerga honetatik salbuestea idatziz eskatu beharko dute Udal honetako Erregistro Orokorrean, urte bakoitzeko otsailaren 28 baino lehen, eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Minusbaliatuek gidatutako ibilgailuak:

- NANaren fotokopia.
- Dagokion organoak egindako minusbaliotasun-ziurtagiria.
- Gida-baimenaren fotokopia (aurreko eta atzeko aldeak)

b) Minusbaliatuak garraiatzeko ibilgailuak:

- Minusbaliatuaren eta ibilgailuaren ohiko gidariaren NANen fotokopia
- Organo eskudunak egindako minusbaliotasun-ziurtagiria

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Ibilgailua salbuespenaren onuradunaren garraiorako eskusiboki erabiltzen dela ziurtatzen duen zinpeko aitortpena.
- c) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinak
- Nekazaritzako makinaren inskripzio-txartelaren fotokopia, edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuko Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofizialean alta emanda dagoela azaltzen duen frogagiria; kasu horretan nahitaez ibilgailuaren titular denaren izenean eginda egon behar du.

IV kapitulua: Subjektu pasiboak .

4.1. Zerga honen subjektu pasibotzat hartuko dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikularen 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri bada., eta baita ahal testatorio baten zain dauden oinordeak, betiere betetzen badituzte foru arau honen 1 artikulua ezarritakoak.

2. Hobariak ematearen ondorioetarako eskabideren hurrengo ekitaldian hasiko da eta ezin du izaera atzeraeraginik izan.

3. Uztailearen 5eko 11/1989 foru arauak, Gipuzkoako toki entitateetako ogasunei buruzkoak 9 artikuluan ezarritakoaren arabera, zergaren kuota gainean arautzen dira ondoko hobariak, gehituta edo ez koefizientearen aplikazio dela eta:

2. %50eko hobaria, ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

3. Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria, familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat, baldintza hori egiaztatzen duten bitartean, urte bakoitzeko otsailaren 28 baino lehen. Subjektu pasiboaren eskaera beharko da horretarako eta honako baldintzok betetzea:

- Hobaria honako subjektu pasiboari aplikatuko zaie: hobaria eskatu den zerga-aldiko urtarilaren 1ean familia ugariaren egoera dutenei.
- Kide guztiak etxebizitza berean egon behar dira erroldatuta.5
- Hobariaren iraupena urtebetekoa izango da
- Hobaria familiako ibilgailu bakarrarentzat izango da.
- Ibilgailuak gehienez 20 zaldi fiskal izango ditu.
- Ibilgailuak gutxienez 5 plaza izango ditu.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Zerbitzuetarako departamentuak emandako frogagiria, familia ugariaren titular direla eta egoera hori indarrean dagoela azaltzen duena.

4. Ibilgailu elektrikoei kuotaren %60ko hobaria ezarriko zaie, eta hibridoek kuotaren %60. Hobari hori aplikagarri izango da lehen bi urteetan ibilgailua matrikulatu denetik hasita.

5. Inolaz ere ezingo da ibilgailu bategatik hobari bat baino gehiago izan zergaldi bakoitzean.

V. kapitulua: Ezarraldia eta sortzapena

5. artikulua.

5.1. Zergaldia eta urte naturala bat etortzen dira, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo Trafikoan behin betiko baja ematen zaienean.

Zergaldia, kasu horietan, ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo, horiei behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja eman zaion hilabetea barne.

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota hainbanatuko da, modu berean.

VI. kapitulua: Kudeaketa

6. artikulua.

Zergaren kudeaketa, kitapena, ikuskapena eta bilketa, ibilgailuaren zirkulazio baimena duen udalari dagokio. Zergaren kudeaketa, kitapena, ikuskapena eta bilketa, bai eta zerga-kudeaketaren bidean xedatutako egintzak berrikustea ere, Ibarra Udalaren ardura dira, ibilgailuaren zirkulazio baimenean datorren helbidea Ibarra Udalerrikoa bada. Zerga honela kudeatuko da: ordainketa zuzenaren erregimenean, zerga horretan alta eman duten ibilgailuak, matrikulatu eta zirkulatzeko baimena izan dutelako, eta gainerako ibilgailuak udalak egindako urteko erroldaren bidez.

Aitorpen-kitapenak udalean dauden inprimaki normalizatueta egingo dira. Aitorpen-kitapen horien kalkulua egiteko beharrezko diren elementuak izan behar dituzte, eta agiri hauekin batera aurkeztu behar dira: erosi edo aldatu dela azaltzen duen frogagiriarekin, ezaugarri teknikoaren ziurtagiriarekin, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta subjektu pasiboaren Identifikazio Fiskalerako Kodearekin.

1. Ibilgailu matrikulatu edo zirkulaziorako gaituak badira, urteko lehen hiruhilekoan egingo da ordainketa, eta udalak ezarritako kobratze-aldian, zeina GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN eta iragarki oholean emango baita argitara edo egoki irizitako bete moduren batean.

2. Aurreko a alean aipaturiko kasuan, urteko erroldaren sistemaren arabera egingo da diru-bilketa. Erroldaren aldaketak oinarrituko dira Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan.

3. Zergaren errolda edo matrikula jendaurrean jarriko da hamabost eguneko epean interesdunek aztertzeko eta dagozkion erreklamazioak aurkezteko. Jendaurre aldia GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN emango da argitara eta subjektu pasibo bakoitzaren likidazioaren jakinarazpen ondorioak izango ditu.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

7.1.artikulua Trafikoko Buruzagitzan ibilgailu bat matrikulatzeko, zirkulatzeko gaitasun ziurtagiria edo behin betiko baja eskatzen dutenek, aurrez zerga ordaindu dutela ziurtatu behar dute.

2. Ibilgailuen titular direnek, Trafikoko Buruzagitzari ibilgailuen aldaketaren berri ematen diotenean –betiere ibilgailuaren sailkapena zerga honen ondorioetarako aldatu bada-, bai eta transferentzien berri edota ibilgailuaren zirkulazio baimenean datorren helbidearen aldaketaren berri edo ibilgailuen bajaren berri ematen diotenean ere, azkeneko ordainagiria ordaindu dutela egiaztatu behar dute, Trafikoko Buruzagitzan zerga kobratu zaiela adierazten duen frogagiria aurkeztuz, hori guztia kontzeptu horrengatik sortutako, kitatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak kudeaketa edo ikuskatze bidean ordaintzea eskatu ahal izateko eragozpen izan gabe. Egiaztatzeko betebeharrak horretatik salbuetsita daude hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuei behin betiko baja ematen zaien kasuak.

3. Trafikoko buruzagitzek ez dituzte izapidetuko ibilgailuen baja emateko edo transferentzia egiteko txostenak, baldin eta zerga ordaindu dela egiaztatzen ez bada.

VII KAPITULUA ITZULKETAK

8. artikulua. Ibilgailuaren behin betiko baja zerga sortu ondoren gertatu bada eta kuota ordaindu bada, subjektu pasiboak jasotzea dagokion kopurua eska dezake, betiere, trafikon baja emandako hilabetearen ondorengoa.

8.- 1.2. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala./

a) 4.3 atalaren edukia aldatzea:

4. 3. *Higiezinaren zergaren kuota osoaren %50eko hobaria emango zaie eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak jarri dituztenei. Bere aplikazioak honako baldintza hau izango du: beroa produzitzeko instalazioak kolektoreak izatea, eskumeneko administrazioaren homologazioa dutenak.*

b) ERREKARGUAREN ERREGIMENA ALDATZEA ONDORENGO EDUKIA UTZIAZ

5. artikulua. Ohiko bizilekua ez direlako errenergua duten bizileku erabilerako ondasun higiezinak.

1. *Subjektu pasiboaren edo —alokatzearen edo erabilera lagatzearen bidez— hirugarrenen ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak, zerga ordenantza honetako eranskinean jasotako errenerguari lotuta egongo*

2. *Bizileku erabilerako ondasun higiezinak Joko dira, katastroan etxebizitza erabilerakotzat edo etxebizitza xedekotzat ageri diren lokalak. Etxebizitzari atxikitakoak sartuko dira, baldin erregistroko finka bakarra badira,*

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

3. Errekarguaren subjektu pasibo izango dira zerga honen subjektu pasiboak.
4. Errekargua, errekarua aplikatzen zaion zerga sortzen den unean bertan sortuko da, eta kuotarekin batera galdutako da.
5. Errekargua kuotaren gaineko %25 izango da.

6. artikulua: Ohiko bizilekutzat jotzea.

1. Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da, baldin zerga sortzen den egunean udal honen biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.
2. Egiazko ohiko etxebizitzat hartuko da, egiaztatzen bada ondasun higiezinan ematen dela 183 egun baino gehiago urtean.
3. Bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titulartasuna Administrazio Publiko batena bada, aski izango da administrazio horrek aurkeztutako deklarazioa, ondasun higiezinak egiaz bizilekutarako direla jokatzeko. Udalak, halere, administrazio titularrari errekeritu ahalko dio egiazta dezala ondasun higiezin horiek bizilekutarako direla.

7. artikulua: ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, subjektu pasibo dela kausa errekarua aplikatzeari lotuta ez daudenak.

Ez zaie errekarua hau aplikatuko udalaren, haren erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta kapital osoa udalarena duten merkataritza sozietateen jabetzako etxebizitzei.

8. artikulua: Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, xedea dela kausa errekarua aplikatzeari lotuta ez daudenak.

Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekarua hau aplikatuzetik, 6. artikuluan ezarritako baldintzetan, baldin eta ondorengo kasu batean aurkitzen badira:

- a) Bere helburuen artean ondasun higiezina errentan ematearena duten erakunde publiko baten esku jarritakoak.
- b) Errentan emandakoak. Hori ziurtatzeko alokairu kontratua aurkeztu beharko dute. Kontratu honen berri emango zaio Ogasunari. Alokairua urteko martxoaren 31 baino lehen edo aurreko urteko 2. seihilabetean egon beharko du indarrean.
- c) Udal planeamenduak antolamendutik kanpo aitortutako etxebizitzak

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Errekargua ezabatu ahal izateko, urtean 183 egunez etxea erabili izan dela frogatu beharko da. Honen frogariria, zergaren likidazio urtearen hurrengo urtarrilaren 31 bitarte aurkeztu beharko da.

9.- 1.3. Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

a)4.5. artikulua erredakzioa aldatzea:

4.5.1 Etxebizitza eta lokaletako mantentze eta hobekuntza lanak, hala nola teilatuak eta fatxadak eta bestelako elementuak; barrualdean azulejuak aldatzea, zoruak, leihoak, aroztegia, margoak, instalazioak berritzea...nahiz eta banaketa ez aldatu.

b)7. Artikuluaren erredakzioa aldatzea:

7. artikulua. Hobariak .

1. Zergaren kuota osoaren %95eko hobaria emango zaie eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak jarri dituztenei . Bere aplikazioak honako baldintza hau izango du: berao produzitzeko instalazioak kolektoreak izatea, eskumeneko administrazioaren homologazioa dutenak. Ez da aplikagarria izango eraikuntza berriko eraikinentzat edo EKD (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) indarrean sartu ondoren eraikitakoak.

C) hobari bezala jasotzea foru arauan azaltzen diren guztiak, bere kopuru handiengan.

c)Tipoari dagokionean egungo taula ordeztzen duen hau jasotzea:

<i>Eraikuntza, instalazio edo obra mota</i>	<i>Karga-tasa gravámen</i>	<i>Clase de construcción, instalación u obra:</i>
Obra txikiak eta handiak eta jarduera gogaikarri, osasunaren kalterako, kaltegarri eta arriskutsuen txostenari atxikita dauden obrak	5%	Obras mayores y las sujetas a expediente A.M.I.N.P.:
Apattaerrekako industria-eremuko obra handiak eta jarduera gogaikarri, osasunaren kalterako, kaltegarri eta arriskutsuen txostenari atxikita dauden obrak	5 %	Obras mayores y las sujetas a expediente A.M.I.N.P. de la zona industrial de Apattaerreka:

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

10.- 2.1.1. Zaborrak bildu eta deuseztatzeko zerbitzua.

a) 1.2f) atalaren erredakzioa hobetzea:

1.2.f) IAE zergan altan dauden lokal edo garajeak, nahiz eta une horretan erabilerarik ez izan.

11.- 2.1.2. Hirigintza espedienteak tramitatzea.

a) Tasen kopuruei dagozkien taulak aldatu eta honakoak ezartzea:

Proiekturik gabeko obrak	60 euro	Obras que no requieren proyecto
Proiekturik gabeak baina segurtasun plana behar dutenak	150 €	Obras que no requieren proyecto pero si plan de seguridad
PROIEKTUA BEHAR DUTENAK / LOS QUE REQUIEREN PROYECTO		
Aurrekontua <30.000,00 €	300 €	Presupuesto <30.000,00 €
30.000,01 € < aurrekontua > 150.000,00 €	700 €	30.000,01 € < Presupuesto > 150.000,00 €
Aurrekontua > 150.000,01 €	1200 €	Presupuesto > 150.000,01 €
<i>Erabilera edo Lehen erabilera lizentzia tasa</i>		<i>Tasa de Licencia de Uso o Primera Utilización</i>
Etxebizitza	100 €	Vivienda
<i>Lehen erabilera edo erabilera lizentzia APATTA</i>	200 €	<i>Tasa de Licencia de Uso o Primera Utilización APATTA</i>

12.- 2.1.3 Jarduerak irekitzeko eta haiek kontralatzeko zerbitzuak emateko tasak.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Honako aldaketak jasotzea 2 eta 4 ataletan:

2. Ordainarazpen honetarako ondorengo egoerak hartuko dira kontuan:
 - b) Jarduera aldatzea lokal batetik bestera lehen instalaziotzat joko da.
 - c) Negozio lekualdatzeak edo lagatzeak eta jardueraren titular aldaketa (bertako jarduera aldatu gabe)
 - d) Jarduera aldaketak, nahiz eta izena ez aldatu, ezta titular eta lokala ere. Lehen instalaziotzat joko dira.
3. Ordaintzeko obligazioa zehaztuko du bertan ematen den industria, merkataritza, lanbide edo jarduerak, eta titularrak jardueraren aurretiazko komunikazioa edo titular aldaketaren komunikazioa aurkezten duenetik hasiko da.
4. Hobariak .

- d) Titulartasun aldaketak ez daude ordainketatik salbuetsita.

13.- 2.2.1. Hesiak, andamioak, eskorak eta astoak./

3. atala honela jasotzea;

3. Okupazio lan puntualengatik baldin bada (altxagailuak jartzea egun bateko konponketa puntualak egiteko adibidez) ez da tarifarik ezarriko. Okupazio bada aparkalekuko bat, aparkaleku osoa joko da (4,80 x 2,20 m) okupatu beharreko azalera tasa aplikatzeko orduan.

14.- 2.2.3. Udal jabari publikoetako zoruaren, erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia./

- a) Edukiontziei dagokion tasa kentzea eta okupazio orokorrekoa aplikatzea
- b) Terrazei dagokion tasak ezabatzea.

15.- Giza larrialdiko etxebizitzak eta babespeko etxebizitzak Azkuen.

- a) **Bi zatitan banatzea egun prezio publiko bakar bezala jasota zegoena, eta erabilera anitzetako izaera ematea, Udalak halako kasuren batean erabili behar izanez gero :**

3.5.1 Etxebizitza komunitarioak Azkuen

2019/10/24

12



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

I KAPITULUA

SUBJEKTU PASIBOA

1. Artikulua

Etxebizitza hauek, batez ere, gizarte zerbitzuetako erabilerara daude bideratuta. Dena den, eta erabilgarri daudenean, interes orokorrera bidera daitezke alkate dekretu bidez. Kasu horietan ez da beharrezko izango ondorengo baldintzak betetzea eta tasa soilik izango da aplikagarri.

Tasa hau etxebizitza sozial komunitarioetan bizi direnek ordaindu beharko dute.

Ingresatzeko bete beharreko baldintzak:

1. Ibarra bizi direla egiaztatu beharko dute premialdietako kasuetan izan ezik, batez ere, tratu txarren kasuetan.
2. Ez da onartuko, baldin eta frogatzen bada egoitza aldaketa egin dela pisuan ingresatzeko asmoarekin ez beste helbururekin.
3. Gaixotasun psikiko edo fisikorik ez izatea, aztorarazi dezakeena edo elkarbizitza zailarazi.
4. Bere buruaz balia daitekeena izatea, eguneroko bizitzari dagokionez, eta ez egotea baliatzeko gaitasuna galtzeko zorian (aplikatuko litzateke Gipuzkoako Foru Diputazioko Gizarte Politikako Departamentuaren ezintasun balorazioaren baremoa).
5. Ondorengo egoeraren bat, batzuk edo denak jasatea:
 - Bakarrik edo/eta bere kabuz baliatu ezin dela egotea
 - Etxebizitzarik ez izatea edo bizigarritasunik ez duen batean bizitzea.
 - Gizarte- eta/edo familia-euskarririk ez izatea.
 - Gizarte Zerbitzuen iritzian zerbitzu honen beharra duen beste edozein

II KAPITULUA

TARIFAK ETA ORDAINKETA

2. Artikulua

Zerbitzu honek dituen tarifak ERANSKIN honen koadroan agertzen dira.

3. Artikulua

Ordaintzeko modua: aurreko hileko kuota hurrengo hilaren hasieran ordainduko du egoiliarrek, banku-helbideratze bidez.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Gizarte larrialdia eta babespeko etxebizitzak		Emergencia social y apartamentos tutelados	
Hileko tarifa		Tarifa mensual	
65 urte baino gehiago, pertsonako	153,43 €	Mayores de 65 años, por persona cesionaria	
65 urte baino gehiago, pertsonako eta bakarreko logelan	186,47	Mayores de 65, por persona y en habitación individual	
Logela partekatua	178,05 €	Habitación compartida	

3.5.2 Balio anitzeko larrialdiko etxebizitzak

I KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOA

1. Artikulua

Onuradun izan daitezke Ibarra erroldatuta egon ta honako egoeraren batean daudenak:

- Familia harreman jasanezinak tratu txar fisiko edo psikikoengatik. Genero indarkeria pairatzen duten emakumeak.
- Epai judizial irmo bidezko kaleratzeak, jurisdikzio zibilean izandako prozeduraren ondorioz emanak ez delako ordainketarik egin baliabide nahikoa ez izateagatik, jabearen beharragatik edo aurri-deklarazioagatik.
- Udal aurri-deklarazioa izatea harrera behar duten pertsonen etxebizitzan.
- Hondamendi, sute, uholde edo antzeko fenomenoek eragitea familia unitateko etxebizitzari.
- Larrialdiko beste egoera batzuk:

Genero indarkeriaren kasuan, Ibarra erroldatua egotea eskatu ahalko da beste gizarte zerbitzu batetik baldin badator kaltetua.

II KAPITULUA TARIFAK ETA ORDAINKETA

Zerbitzu honek dituen tarifak ERANSKIN honen koadroan agertzen dira.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Sortzapena okupazioaren laugarren hilabetean egingo da.

ERANSKINA / ANEXO

<i>Gizarte larrialdiak Hileko tarifa</i>		<i>Emergencia social. Tarifa mensual</i>
Bi logelako etxebizitza	153,43 €	Vivienda de os habitaciones
Hiru logelako etxebizitza	186,47 €	Vivienda de tres habitaciones

16.- 3.6. Udal dotazio etxebizitzak euskal herria 18-2 zk.an.

a) **Jarraian azaltzen den esaldiarekin osatzea:**

2.- Uztailean aurkeztu beharko da errentaren azken aitortpena.

BIGARRENGOA.- 2020rako egutegi fiskala onartzea

<i>Egutegi Fiskala - Calendario Fiscal</i>		
<i>Kontzeptua</i> <i>Concepto</i>	<i>Aldia</i> <i>Periodo</i>	<i>Ordainaldia</i> <i>Plazo voluntario</i>
Kirol ikastaroak . aldia	Aldia	2019-11-15
Talleres deportivos 1. periodo	periodo	15-11-2019
T.A.O	Urtekoa	2020-01-20 — 2020-02-10
O.T.A	Anual	20-01-2020 — 10-02-2020

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga Impuesto vehículos de tracción mecánica	Urtekoa Anual	2020-02-27 – 2020-04-10 27-02-2020 – 10-04-2020
Kiroldegia Tasa de polideportivo	Urtekoa Anual	2020-03-01 — 2020-03-15 01-03-2020 — 15-03-2020
Kirol ikastaroak 2.aldia Talleres deportivos 2.periodo	aldia periodo	2020-03-15 15-03-2020
Zaborbilketa 1. Seihiilekoa Recogida de basuras 1er semestre	seihiilekoa semestre	2020-03-10 — 2020-04-25 10-03-2020 — 25-04-2020
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Impuesto sobre Bienes Inmuebles	Urtekoa Anual	2020-05-15 — 2020-06-30 15-05-2020 — 30-06-2020
Zaborbilketa 2. Seihiilekoa Recogida de basuras 2º semestre	seihiilekoa semestre	2020-07-19 — 2020-09-25 19-07-2020 — 25-09-2020
Udalekuak Colonias de verano	Urtekoa Anual	2020-07-01 — 2020-07-01
Jarduera Ekonimikoen gaineko Zerga Impuesto s-Actividades Económicas	Urtekoa Anual	2020-10-02 — 2020-11-10 02-10-2020 — 10-11-2020
Kultur tailerrak lehen zatia Talleres culturales primera parte	aldia periodo	2019-11-15 15/11/2019
Kultur tailerrak bigarren zatia Talleres culturales segunda parte	Aldia periodo	2020-03-15 15-03-2020

HIRUGARRENGOA.- GAO on argitaratzea, eta 30 eguneko jende aurreko epealdia ezartzea. Epe honetan alegaziorik izan ezean, behin betiko izaerarekin onartua geratzea.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

BIGARRENA

2.- IBARRAKO EAJ/PNV TALDEAK UDALBATZARI AURKEZTEN DION MOZIOA ALDAKETA KLIMATIKOAREN INGURUAN

Ibarrako EAJ/PNVko udal taldeak, udalbatzari honako mozio hau eztabaida eta onar dezan proposatzen dio:

Mozioa

1. Ibarrako Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratzeko du.
2. Ibarrako Udalak, legebiltzarrean tramitatzen ari den lege proiektua Eudelekin koordinatu dezala Jaurlaritzari eskatzen dio. Era berean, abian jarri duen lege proiektu horrek deklaratzeko duen larrialdi horri aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera aztertu dezala eskatzen dio.
3. Ibarrako Udalak, Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera premiatzen du, era koordinatuan udaletxe eta gainontzeko erakundeekin.
4. Ibarrako Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrek garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.
5. Udalak 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du 8 hilabeteko epean, aldaketa klimatikoari aurre egiteko pauso garrantzitsu bat izanik.
6. Ibarrako Udalak, legebiltzarrek onartuko duen aldaketa klimatikorako legeak jasoko dituen helburuen garapenerako plangintza martxan jarriko du. Udalerriko egoeraren diagnosia kontuan hartuta, prozesu parte-hartzaile baten eskutik, herritarren eta herriko eragile ezberdinen ekarpenak bilduko dituelarik.
7. Ibarrako Udalak, udalerriko herritar eta eragileekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea.
8. Ibarrako Udalak, herritar eta eragile sozial, ekonomiko eta kultural guztien aldaketa klimatikoaren ondorioez jabetzeko kontzientziazio kanpaina bat martxan jartzeko konpromisoa hartzen du.
9. Ibarrako Udalak Bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritarrei.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

10. Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.

Udalbatzak, aho- batez, 10 aldeko botorekin, (BILDU eta EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea EAJ/PNV taldeak udalbatzari aurkezten dion mozioa, aldaketa klimatikoaren inguruan.

BIGARRENGOA.- Erabakia jakinarazi Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministeriri.

HIRUGARRENA

3.- KATALUNIAKO ARAZOAREN INGURUAN EH BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

EH Bildu taldeak Ibarra Udalbatzari honako deklarazio instituzionala aurkezten dio, honek onar dezan:

Deklarazio instituzionala

Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako buruzagi independentisten aurka emandako epaiaren aurrean, Ibarra Udalak ondorengo adierazten du:

- Epai honek agerian uzten du Estatuak, botere judiziala tresna politiko huts gisa hartuta, gure herrien autodeterminazio eskubidea defendatzen dugunontzat ezarritako prezioa: gerra ekonomikoa, 155 eta espetxea.
- Berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari, independentista kondenatuei, haien senitarteko eta

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

lagunei, baita Espainiako Gobernuak gidatuta demokraziaren aurkako errepresio politikoa pairatzen duten pertsona eta erakunde guztiei ere.

- Herrien autodeterminazio eskubidea lantzeko konpromisoa bere egiten du, herrien asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratu eta erabakiak errespetatuak izan daitezzen.
- Gure etorkizuna erabaki nahi dugun herrien eta bertako herritarren borondate librearekiko errespetutik abiatuta, gure etorkizuna eraiki nahi dugula berresten du.
- Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa den errepresio estrategia.
- Espainiako Gobernuari eskatzen dio aske utz ditzala espetxeratuak eta bertan behera utz ditzala erbesteratuen aurkako auzibideak.

Udalbatzak, 10 aldeko botorekin, (BILDU eta EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea EH BILDU taldeak, Kataluniako arazoaren inguruan aurkezten duen deklarazio instituzionala.

BIGARRENGOA.- Erabakia jakinarazi Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamaika direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2019/10/24



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2019/10/24

20